



A24 Class

A24Class



- Esku libreko funtzioa
- Ahots-postontzia
- Deiak desbideratzea

ESKULIBURUA
- Edición 1h / 05-12

aurkibidea

| | |
|--|-----------|
| 1. Kontuan hartu beharreko neurriak | 4 |
| 2. Mantentze-Lanak | 4 |
| 3. Birziklatzea | 5 |
| 4. Instalazioa eta konfigurazioa | 5 |
| 4.1. Kaxaren edukia | 5 |
| 4.2. Kontrolen kokapena | 6 |
| 4.3. Instalazioa | 7 |
| 4.4. Konfigurazioa | 8 |
| 5. Funtzionamendua | 14 |
| 5.1. Sarrerako deiak | 14 |
| 5.2. Deiak egitea | 14 |
| 5.3. Esekita dagoela markatzea..... | 14 |
| 5.4. Esku libreko funtzioarekin deitzea | 14 |
| 5.5. Azkenekoz markatutako zenbakia beriz markatzea.. | 15 |
| 5.6. Markatutako azken 25 zenbakien berrikusketa ... | 15 |
| 5.7. Markatutako azken 25 zenbakietako batzuetara deitzea | 15 |
| 5.8. Markatutako azken 25 zenbakietako bat telefono- aurkibidean gordetzea..... | 15 |
| 5.9. Markatutako zenbakien zerrendako zenbaki bat ezabatzea..... | 15 |
| 5.10. Zerrendako zenbaki guztiak ezabatzea | 16 |
| 5.11. Zain egoteko musika | 16 |
| 5.12. Esku libreko gailuaren bolumena doitzea | 16 |
| 5.13. Txirrinaren bolumenaren doitzaila..... | 16 |
| 5.14. Kontagailua | 16 |
| 5.15. Etenaldia | 16 |

| | |
|---|-----------|
| 6. Jasotako deien kontrola | 17 |
| <hr/> | |
| 6.1. Jasotako deiak berrikustea..... | 17 |
| 6.2. Jasotako deien zerrendatik markatzea..... | 18 |
| 6.3. Galdutako deien zerrendako zenbaki bat telefono-aurkibidean gordetzea..... | 18 |
| 6.4. Galdutako deien zerrendatik zenbaki bat ezabatzea | 19 |
| 6.5. Galdutako deien zerrendatik zenbaki guztiak ezabatzea..... | 19 |
| 6.6. Jasotako mezuen adierazlea | 19 |
| 7. Agenda | 20 |
| <hr/> | |
| 7.1. Agendan kontaktuak sartzea | 20 |
| 7.2. Telefono-aurkibidean kontaktuak bilatzea | 20 |
| 7.3. Agendatik markatzea..... | 20 |
| 7.4. Aurkibideko kontaktu bat aldatzea..... | 21 |
| 7.5. Aurkibideko kontaktu bat ezabatzea..... | 21 |
| 7.6. Aurkibideko kontaktu guztiak ezabatzea..... | 21 |
| 8. Zerbitzu bereziak | 22 |
| <hr/> | |
| 8.1. Deien desbideratzea | 22 |
| 8.2. Deia zain | 22 |
| 8.3. Hiruko deia | 22 |
| 8.4. Ahots-postontzirako lasterbidea | 23 |
| 8.5. Euskaltelen bezeroentzako zerbitzua | 23 |
| 9. Zer egin zalantzaren bat izanez gero | 24 |
| <hr/> | |
| 10. Zehaztapen teknikoak | 24 |
| <hr/> | |
| Adostasun-deklarazioa | 25 |

1 kontuan hartu beharreko neurriak

- Mesedez, irakurri erabilera-jarraibideak tresna erabili aurretik.
- Instalatu tresna hau gainazal egonkor batean.
- Ekipo honen zati guztiak barrualdean erabiltzeko dira. Ez jarri telefonoa urarekin kontaktuan. Ez instalatu ekipoa konketaren edo dutxaren ondoan edo busti daitekeen tokietan. Baliteke kaltetzea. Ez erabili telefonoa aire librean, ekaitza badago. Deskonektatu telefono-lineatik. Baliteke kalteak izatea tentsioigoeren ondorioz. Uretara eroriz gero, deskonektatu telefonolineatik..
- Ez ireki telefonoa, hondatu egin baitaiteke eta bermearen aldia bertan behera utzi. Jarri harremanetan Baimendutako Zerbitzu Teknikoarekin.
- Ziurtatu pilak posizio egokian jarrita daudela.

2 mantentze-lanak

- Erabili zapi heze bat telefonoa garbitzeko.
- Ez erabili bentzinarik, alkoholik edo disolbatzaile kimikorik.
- Ez erabili produktu urratzailerik telefonoa garbitzeko, ez eta aerosolik ere.
- Ez dezala hautsik izan unitateak, eta ez jarri unitatea tenperatura altua eta bibrazioak dauden lekuan.
- Ez jarri telefonoa eguzki-argitan.

2 birziklatzea

Ez bota telefonoa etxeko zaborrarekin batera. Eskatu informazioa zure herriko udalari, tresna zaborretara botatzeko ingurumena kaltetzen ez duten zer bide erabil dezakezun jakiteko.

Kartoizko kaxa, bilgarriaren plastikoa eta telefonoaren piezak birzikla daitezke, birziklatzeari buruz Espainian indarrean dauden arauen arabera.

Bete itzazu beti birziklatzeari buruz indarrean dauden arauak. Legeak ezarritako zigorrak eta neurriak bete behar dituzte arauak urratzen dituztenek.



Tresnan agertzen den edukiontzia eta gurutzearen ikurrak adierazten du ekipoaren bizitza erabilgarria amaitzen denean, tresna horretarako egokia den bilgune batera eraman behar dela, eta hiri-hondakinetatik bereizita tratatu behar dela.

Ingurumena babesteko, pila berriak jartzen dituzunean, erabili pilak birziklatzeko edukiontzi publikoak.


4 instalazioa eta konfigurazioa

4.1 Kaxaren Edukia

Telefono-kaxaren barruan, elementu hauek egon behar dute:

- 1 Teléfono.
- 1 mikrotelefonoaren kable kizkur..
- 1 linea-kable.
- Erabiltzailearen eskuliburua..
- BAZ zerrenda..

4.2 kontrolen kokapena



- 1 Galdutako deiaren argi-adierazlea.
- 2 Pantaila.
- 3 Deiak desbideratzeko tekla.
- 4 Jasotako deien zerrenda.
- 5 Zain egoteko musika.
- 6 Egindako deien zerrenda.
- 7 Azkenekoz markatutako zenbakia berriz markatzeko tekla / Etena.
- 8 Euskaltelen Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua.
- 9 Deia zain.
- 10 Ahots-postontzirako lasterbidea.
- 11 Esku libreko funtzioa.
- 12 Agendara sartzeko tekla.
- 13 Hiruko deia.
- 14 Ezabatu.
- 15 Menuko aukerak.
- 16 Zerbitzu gehigarrietara sartzeko tekla.
- 17 Teklatu alfanumerikoa.
- 18 Beste telefono bat konektatzeko sarrera.
- 19 Linearen kable zapalerako sarrera.
- 20 Txirrinaren bolumenaren doitzaila.
- 21 Esku libreko gailuaren bolumenaren doitzaila.
- 22 Mahaiko euskarria.
- 23 Hormarako euskarriaren pieza.
- 24 Mikrotelefonoaren kable kizkurrerako sarrera.
- 25 Pilen tokia.
- 26 Mikrotelefonoaren kable kizkurrerako sarrera.
- 27 Esku libreko mikrofonoa.

4.3 instalazioa


• Mahaiaren Gainean:


1. Konektatu mikrotelefonoako kable kizkurraren mutur bat mikrotelefonoaren behealdeko konektorearekin (26); kablearen beste muturra, berriz, oinarriaren alboan dagoen konektorearekin (24).
2. Konektatu linearen kable lisoaren mutur bat telefonoaren aurrealdeko alboarekin (19), eta bestea telefonohargunearekin edo -entxufearekin. Egiaztatu mikrotelefonoa altxatzean tonua entzuten dela.

OHARRA

Ekipo honek du pilarik behar funtzionatzeko. Instalatu AA neurriko hiru pila alkalino (1.5 V), prestazio osagarri hauek funtzionatzea nahi baduzu: pantailako argia eta teklen tonua.

• Horman:

1. Kendu mahaigaineko pieza (22). Horretarako, tiratu irtengunetik atzerantz, eta, ondoren, altxatu pieza.
2. Atera eta biratu 180° hormako euskarriaren pieza  (23). Irtenguneak kanporantz gelditu behar du, mikrotelefonoari eutsi ahal izateko.
3. Egin horman bi zulo horizontal, 108 mm-ko tartearekin.
4. Jarri torlojuak. Egokitu oinarria horman jartzeko torlojuen ahokalekuan, eta ziurtatu ondo finkatuta geratzen dela.



4.4 konfigurazioa








Terminala telefono-lineara konektatu ondoren, deiak egiteko eta jasotzeko prest egongo da. Hala ere, nahi baduzu, hizkuntza, txirrin-melodia, data eta ordua, kontrastea, etab. konfiguratu ditzakezu..

MENU teklan, aukera nagusi hauek daude:

- 1- Telefono-aurkibidea
- 2- Deien erregistroa
- 3- Telefonoaren doikuntzak

Hizkuntza hautatzea:

Zazpi hizkuntza ditu: euskara, ingelesa, frantsesa, espainiera, alemana, italiara eta poloniera.

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla.. Sakatu   tekla **Telef.** ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla.
2. Pantailan **Hizkuntza** bistartzen da. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sakatu   edo   tekla, zuk nahi duzun hizkuntza hautatzeko. Sakatu **MENU** tekla, berresteko.
4. Sakatu bi aldiz  tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

■ Kontrastea doitzea:

Terminalaren pantailaren kontrastea alda dezakezu. Bost maila ditu. Egin urrats hauek kontrastea aldatzeko:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ tekla **Telef.** ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla.
2. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ tekla **LCD** kontrastea aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ edo $\uparrow \mathcal{P}$ tekla, zuk nahi duzun kontrastea hautatzeko. Sakatu **MENU** tekla, berresteko.
4. Sakatu bi aldiz \mathcal{P} tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

■ Data eta ordua:






Telefono honek automatikoki eguneratzen ditu eguna eta ordua, dei-egilearen abonatu-zenbakiaren identifikazioa duen lehen deia jasotzean. Beraz, ez da beharrezkoa erabiltzaileak ezer egitea. Horretarako, deiak identifikatzeko zerbitzua aktibatua izan behar duzu zure telefono-konpainiarekin (Euskaltel).

Eskuz egin nahi baduzu, jarraitu urrats hauei:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ tekla **Telef.** ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla
2. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ tekla **Data/Ordua** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura.
3. Sakatu **MENU** tekla. Pantailak aukera hauek erakutsiko dizkizu tekla behin eta berriz sakatzen duzunean: **Ordu-formatua**, **Data-formatua**, **Doitu ordua** eta **Doitu data**.
4. Pantailak **Ordu-formatua** erakusten dizunean, sakatu **MENU**. Sakatu $\uparrow \mathcal{P}$ tekla, 24 orduko formatua (fabrikakoa) edo 12 ordukoa hautatzeko. Sakatu **MENU**.
5. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ tekla, **Data-formatua** hautatzeko, eta, ondoren, sakatu **MENU**. Sakatu $\uparrow \mathcal{P}$ tekla, **DD/MM** formatua (fabrikakoa) edo **MM/DD** formatua hautatzeko. Sakatu **MENU**.
6. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ tekla, **Doitu ordua** hautatzeko, eta, ondoren, sakatu **MENU**. Pantailan, **Sartu ordua** : bistaratzen da. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ edo $\uparrow \mathcal{P}$ ordua sartzeko, eta, ondoren, sakatu **MENU** tekla. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ edo $\uparrow \mathcal{P}$ tekla, minutuak sartzeko. Sakatu **MENU**.
7. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ **Doitu data** hautatzeko, eta, ondoren, sakatu **MENU**. Pantailan, **Sartu data**: bistaratzen da. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ edo $\uparrow \mathcal{P}$ hilabetea sartzeko, eta, ondoren, sakatu **MENU** tekla. Sakatu $\downarrow \equiv \rightarrow$ edo $\uparrow \mathcal{P}$ tekla, eguna sartzeko. Sakatu **MENU**.
8. Sakatu hiru aldiz \mathcal{P} tekla, hasierako pantailara itzultzeko..

■ Txirrinaren melodia hautatzea:






Zortzi txirrin-melodia dituzu.

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu  tekla **Telef. ezarpenak** aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla.
2. Sakatu tekla  **Txirrin-doinua** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sakatu  edo  tekla, melodia aldatzeko. 1. txirrinetik 8. eraino ("Timbre 1 ... Timbre 8").
4. Sakatu **MENU** tekla, berresteko.
5. Sakatu bi aldiz  tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

■ R tekla:









Tekla honen bidez, Euskaltelek edo zure telefonoguneak eskaintzen dizkizun zerbitzu Osagarriak erabili ditzakezu. Horretarako, "R" tekla sakatu behar duzu, eta dagokion kodea markatu.

R denboraren iraupena minutik alda daiteke. Euskaltelentzat, 100 ms izan behar du. Zure herrialdearekin bat ez datorren R denbora batekin konfiguratzeko baduzu zure telefonoa, ezingo dituzu erabili zure telefono-konpainiak eskaintzen dizkizun zerbitzu batzuk.

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu  tekla **Telef. ezarpenak** aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla.
2. Sakatu  tekla **R denbora** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sakatu  edo  tekla, zuk nahi duzun denbora (milisekundotan) hautatzeko.
4. Sakatu **MENU** tekla, berresteko.
5. Sakatu bi aldiz  tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

■ Deiak murriztea:



Aukera duzu hautatzen duzun zenbakiarekin hasten diren zenbakien markaketa murrizteko. Bost zenbaki edo aurrezenbaki dituzu gehienez.

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla. Sakatu   tekla **Telef. ezarpenak** aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu MENU tekla.
2. Sakatu   tekla **Murrizketa** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. **Zenba.murriztua** pantaila. Sakatu **MENU** tekla.
4. Pantailan, **Sartu kodea (pasahitza)** azalduko da, zenbaki murriztueta sartzeko. Idatzi 0000 (fabrikakoa), eta sakatu **MENU** tekla.
5. Pantailan, **Zenba.murriztua** 1 azalduko da. Sakatu MENU tekla. Sartu aurrezenbakia (sei digitu bitartekoa) teklatuaren bidez (nahasten bazara,  sakatu tekla), eta sakatu MENU.
6. Zenbaki gehiago sartzen jarraitu dezakezu   teklarekin Zenba.murriztua 2 hautatuta, bostera bitartean, edo, bestela, pantaila nagusira atera zaitezke  tekla behin baino gehiagotan sakatuta.

Adibidez: murriztu beharreko aurrezenbaki gisa 123 sartu baduzu, hasieran 123 duen zenbakiren bat sartzen duzunean (123xxxxx), baztertu egingo da, eta ez da markatuko linea.










Pantailan Blokeatuta agertuko da..

Kodea (pasahitza) aidatzea

Aurreko atalean, Zenba.murriztua hautatu beharrean, hautatu **Aldatu kodea**   teklarekin. Sakatu **MENU** tekla. Pantailan, Kode zaharra bistaratzen da. Idatzi 0000 (pasahitza), eta sakatu **MENU** tekla. Sartu uneko pasahitza ordezkatzeko pasahitz berria (Kode berria). Sakatu **MENU** tekla, berresteko

■ Markatze-modua:

“Tonuak” moduan markatzeko doituata dator fabrikatik telefonohau. Telefonogune gehienek markatze-mota hori erabiltzen dute. Zerbaitegatik “Pultsu” modura aldatu behar baduzu, jarraitu argibideei.

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu   tekla **Telef. ezarpenak** aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla
2. Sakatu   tekla **Markaketa** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sakatu   edo   tekla, Tonuak edo Pultsuak hautatzeko.
4. Sakatu **MENU** tekla, berresteko
5. Sakatu bi aldiz  tekla, hasierako pantailara itzultzeko..

Alarma:

Eguneko alarma bat konfigura dezakezu.

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla. Sakatu tekla Telef. ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu MENU tekla..
2. Sakatu tekla Ezarri alarma aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu MENU tekla.
3. Sakatu edo tekla, Aktibatu alarma edo Desaktib. alarma hautatzeko. Sakatu MENU tekla.
Aktiba: hautatu uzuz:
4. Sakatu edo ordua sartzeko, eta, ondoren, sakatu MENU tekla.
5. Sakatu edo tekla, minutuak sartzeko. Sakatu MENU.
6. Pantailan ikonoa bistaratuko da, alarma aktibatuta dagoela adierazteko.
7. Sakatu bi aldiz tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

OHARRA

Alarmak 30 segundoan joko du. Sakatu edozein tekla soinua geldiarazteko

PABX Kodea:

Telefonoa enpresa edo bulego bateko telefonogune pribatu batekin konektatuta dagoenean izango da erabilgarria funtzio hori. Ez aktibatu funtzio hori etxerako.

PABX funtzioa aktibatzen baduzu:

Jasotako deien zerrendatik dei bat egitean, telefonoak PABX kodea eta etenaldi bat gehituko dizkio hautatutako zenbakiari, baldin eta zenbaki hori sei digitu baino gehiagokoa bada..




1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu tekla Telef. ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla..
2. Sakatu tekla PABX kodea aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu MENU tekla.
3. Sakatu edo tekla, kodea sartzeko.
4. Sakatu MENU tekla, berresteko..
5. Sakatu bi aldiz tekla, hasierako pantailara itzultzeko..

OHARRA

Desaktibatzeo, berriro hautatu behar dituzu bi marratxoak (--).



■ Software-bertsioa ikustea:

Software-bertsioa zein den jakiteko, egin urrats hauek:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu  tekla Telef. ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla..
2. Sakatu  tekla SW bertsioa aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sakatu hiru aldiz  tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

■ Fabrikako balioak:

Fabrikako balio eta doikuntzetara itzuli nahi baduzu, egin urrats hauek:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu  tekla Telef. ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla.
2. Sakatu  tekla Ezarp. lehenetsia aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Pantailan **Guztia ezabatu?** bistaratuko da. Sakatu **MENU** tekla, berresteko.






OHARRA

Memoria guztiak ezabatu egingo dira.

■ Funtzio osagarriak:

Pilak instalatuak badituzu bakarrik funtzionatuko dute funtzio osagarri hauek: pantailako argia eta teklen tonua.


- Pantailako argia: segundo batzuetan pizten da dei bat jasotzean, markatzean edo teklaren bat sakatutakoan
- Teklen tonua: Funtzio hori aktiba dezakezu, mikrotelefonoa esekita dagoela tekla bat sakatzen duzun bakoitzean berreste-tonu bat egin dezan.

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Sakatu  tekla Telef. ezarpenak aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu **MENU** tekla.
2. Sakatu  tekla Tekla-tonua aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sakatu  edo  tekla, Aktibatu edo Desaktibatu hautatzeko. Sakatu **MENU** tekla.
4. Sakatu bi aldiz  tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

5 funtzionamendua


5.1 sarrerako deiak

Deia jasotzen duzunean, txirrinak jotzen du.



1. Hartu mikrotelefonoa.  ikonoa azalduko da pantailan.
2. Hasi elkarrizketa.
3. Amaitzen duzunean, jarri mikrotelefonoa dagokion tokian.

5.2 deiak egitea

Telefono-zerbitzuaren beste abonatu bati deitzeko, eragiketa hauek egin behar dituzu:




1. Hartu mikrotelefonoa.  ikonoa azalduko da pantailan.
2. Itxaron linearen tonua entzun arte, eta markatu zuk nahi duzun zenbakia.
3. Amaitzen duzunean, jarri mikrotelefonoa dagokion tokian.

5.3 esekita dagoela markatzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, markatu hartzailearen telefono-zenbakia. Nahasiz gero, erabili  tekla digituak ezabatzeko.
2. Hartu mikrotelefonoa.  ikonoa azalduko da pantailan, eta telefonoak zenbakia markatuko du.
3. Amaitzen duzunean, jarri mikrotelefonoa dagokion tokian.

5.4 esku libreko funtzioarekin deitzea

Mikrotelefonoa belarran jarri beharrik gabe hitz egin dezakezu.

1. Linea eskuratzeko, sakatu  tekla.  ikonoa azalduko da pantailan.
2. Markatu zuk nahi duzun zenbakia. Erantzuten dutenean, hitz egin telefonorantz begira.
3. Amaitzean sakatu  tekla.

5.5 azkenekoz markatutako zenbakia berriz markatzea

Azkenekoz markatu duzun telefono-zenbakira berriz deitu nahi baduzu:

1. Altxatu mikrotelefonoa, eta sakatu /P tekla.
2. Amaitzen duzunean, jarri mikrotelefonoa dagokion tokian.

5.6 markatutako azken 25 zenbakien berrikusketa

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu . Pantailak hauek erakusten ditu: zenbakia, noiz eta zenbat denboran hitz egin zenuen, eta zerrendan zenbatgarrena den.

2. Sakatu tekla behin eta berriro, zerrendako zenbaki batetik bestera joateko.
3. Sakatu tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

5.7 markatutako azken 25 zenbakietako batzuetara deitzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla behin eta berriz, markatu nahi duzun zenbakia hautatzeko.
3. Hartu mikrotelefonoa deia egiteko.

5.8 markatutako azken 25 zenbakietako bat telefono-aurkibidean gordetzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla behin eta berriz, aurkibidean gorde nahi duzun zenbakia aukeratzeko.
3. Sakatu **MENU** tekla. Sakatu tekla. Pantailak Agendan gorde? bistaratuko du.
4. Sakatu **MENU** tekla. Sartu izena teklatuaren bidez, eta sakatu **MENU**.
5. Sakatu **MENU** tekla, zenbakia berresteko.

5.9 markatutako zenbakien zerrendako zenbaki bat ezabatzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla behin eta berriz, ezabatu nahi duzun zenbakia hautatzeko.
3. Sakatu **MENU** tekla. Sakatu tekla Ezabatu? Aukerara iritsi arte, eta hautatu hura.
4. Sakatu **MENU** tekla, berresteko.
5. Sakatu tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

5.10 zerrendako zenbaki guztiak ezabatzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu tekla.
2. Sakatu **MENU** tekla. Sakatu tekla **Guztia ezabatu?** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura.
3. Sakatu **MENU** tekla, berresteko.
4. Sakatu tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

5.11 zain egoteko musika

Solaskideak une horretan esatera zoazena entzutea nahi EZ baduzu, sakatu tekla. Telefonoaren beste aldekoak melodia bakarrik entzuten du, eta pantailan Eutsi bistaraten da.

Sakatu berriro tekla, hitz egiten jarraitzeko.

5.12 esku libreko gailuaren bolumena doitzea

Esku libreko moduan hitz egiten ari zarela, mugitu **VOLUMEN (21)** kommutadorearen agintea, bolumena igotzeko edo jaisteko.

5.13 txirrinaren bolumenaren doitzalea

Jarri **TIMBRE (20)** etengailua posizioan bolumen altua ezartzeko; bolumen baxua ezartzeko; eta bolumena kentzeko.

5.14 kontagailua

Terminal honek kontagailu bat dauka, entzungailua altxatu eta 5 bat segundora automatikoki martxan jarriko dena. Horrela, deiak zenbat iraun duen nahiko zehatz jakin ahal izango duzu

5.15 etenaldia

Zenbakiak markatzen ari zarela, etenaldi bat egin dezakezu tekla sakatuta. Funtzio hori baliagarria izan daiteke atzerrira deitzeko, herrialdearen kodearen ondoren etena sartu behar baita.

6 jasotako deien kontrola

Deika nor ari zaizun edo zu ez zeunden bitartean nork deitu dizun jakin dezakezu.

Telefono honek zain dagoen deia identifikatzeko funtzioa ere badauka. Zerbitzu hau aktibatuta badaukazu, beste elkarrizketa batean ari zaren bitartean deika nor ari zaizun jakin ahal izango duzu. Deitu dizun pertsonaren zenbakia ere erregistratuta geratuko da jasotako deien zerrendan.

Pantailan hau bistaratuko da:

-XX-

Guztira: Orain arte jasotako deien kopurua da XX.

-X-

Berriak: Galdutako deien kopurua da XX.

6.1 jasotako deiak berrikustea

Argi-adierazlea (1) keinuka ari bada, eta Berriak kategoriako dei-bankuak 01 dei edo gehiago adierazten baditu, ikusi gabeko deiak dituzu. Jasotako deiak ezabatu arte gordetzen ditu telefonoak. Berriek zaharrak ordezkatzan dituzte. Gehienez, 20 dei gorde ditzakezu. Deia egin duenaren zenbakia telefono-aurkibidean gordeta badago, izena ere bistaratuko da pantailan.

• Galdutako deien zerrenda ikusteko:

1. Sakatu tekla. Pantailaren goialdean, hauek azalduko dira: deia jaso den ordua eta data, zerrendan zenbatgarrena den eta NEW ikonoa. Hurrengo lerroan, zenbakia, eta, azkeneko lerroan, izena (telefono-aurkibidean sartua baduzu).

2. Sakatu tekla, gordetako zenbakia ordena kronologikoan ikusteko.

3. Pantailan LISTA BUKAERA azaltzen denean, ez dago deigehiagorik.

• Erantzundako deien zerrenda ikusteko:

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu MENU tekla. Sakatu tekla Dei-erregistroa aukerara iritsi arte, hautatu hura, eta sakatu MENU tekla.

2. Sakatu tekla Dei erantzunak aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu MENU tekla.

3. Sakatu tekla, erantzundako azken deia ikusteko. Ondoren, sakatu tekla, gordetako zenbakia ordena kronologikoan ikusteko.



OHARRA

galdutako eta irteerako deiak ere ikus ditzakegu.

Beste zenbait azalpen:

- **NEW:** Dei berria.
- **REP:** Errepikatutako deia.
- Galdutako deien zerrenda.
- Erantzundako deien zerrenda.
- Irteerako deien zerrenda (markatuak).
- Ahots-mezu bat duzu zure telefono-konpainiaren postontzian
- **PRIVADO** Deitu duen pertsonak ez du nahi besteek nor den jakitea
- **NO DISPONIBLE** Telefonoguneren batek zenbakia galdu du.
- Ez duzu pilarik jarri

6.2 jasotako deien zerrendatik markatzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu , tekla. Pantailak azken zenbakia erakutsiko du.
2. Sakatu tekla, markatu beharreko zenbakia hautatzeko.
3. Pantailan agertutakoan, nahikoa da mikrotelefonoa altxatzea ekipoak zenbakia automatikoki marka dezan.

OHARRA

MENUtik ere egin daiteke eragiketa hori. Horretarako,dei-erregistrora sartu behar da, lehen azaldu dugunaren arabera. Erantzundako eta irteerako deien zerrendarako ere balio du.

6.3 galdutako deien zerrendako zenbaki bat telefono-aurkibidean gordetzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu tekla.
2. Sakatu tekla behin eta berriz, aurkibidean gorde nahi duzun zenbakia aukeratzeko.
3. Sakatu **MENU** tekla. Sakatu tekla. Pantailak Agendan gorde? bistaratuko du
4. Sakatu **MENU** tekla. Sartu izena teklatuaren bidez, eta sakatu **MENU**.
5. Sakatu **MENU** tekla, zenbakia berresteko.

6.4 galdutako deien zerrendatik zenbaki bat ezabatzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu tekla. Pantailak azken zenbakia erakutsiko du.
2. Sakatu tekla, ezabatu beharreko zenbakia hautatzeko.
3. Sakatu MENU tekla. Sakatu tekla Ezabatu? Aukerara iritsi arte, eta hautatu hura.
4. Sakatu MENU tekla, berresteko.
5. Sakatu tekla, hasierako pantailara itzultzeko.

6.5 galdutako deien zerrendatik zenbaki guztiak ezabatzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu tekla.
2. Sakatu MENU tekla. Sakatu tekla Guztia ezabatu? aukerara iritsi arte, eta hautatu hura.
3. Sakatu MENU tekla, berresteko.
4. Sakatu tekla, hasierako pantailara itzultzeko.



OHARRA

MENUtik ere egin daiteke eragiketa hori. Horretarako, dei-erregistrora sartu behar da, lehen azaldu dugunaren arabera. Erantzundako eta irteerako deien zerrenda ezabatzeko ere balio du.

6.6 jasotako mezuen adierazlea

Zure telefono-konpainiaren ahots-postontzia kontratatuta eta aktibatuta edukiz gero, norbaitek deitzen dizunean eta ahotspostontzian mezu bat uzten duenean, ikonoa bistaratuko da keinuka pantailaren goialdean. Ahots-postontziko mezu guztiak ezabatzen dituzunean, zure telefono-konpainiak seinale bat bidaliko dizu, hari lotutako zenbakirik gabea ikonoa desagertu, eta argi-adierazlea itzali egingo da.

Baliteke eremu edo linea batzuetan funtzio horrek behar bezala ez funtzionatzea.

7 agenda

Agendan, 80 kontaktu sar daitezke. Kontaktu bakoitza izen batek eta hari loturiko zenbakiak osatzen dute.

7.1 agendan kontaktuak sartzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Pantailan Agenda bistaratuko da.
2. Sakatu **MENU** tekla. Sakatu tekla, Berria hautatzeko. Sakatu **MENU** tekla.
3. Sartu izena teklatuaren bidez, eta sakatu **MENU** tekla.
4. Sartu zenbakia teklatuaren bidez, eta sakatu **MENU** tekla.
5. Kontaktuak sartzen jarraitu dezakezu, edo, bestela, sakatu bi aldiz tekla hasierako pantailara itzultzeko.

| Tecla | x1 | x2 | x3 | x4 | x5 | x6 | x7 | x8..... |
|-------|----|---------|----|----|----|----|----|---------|
| 1 | 1 | . | , | ? | ! | * | - | ()@/:_% |
| 2 | A | B | C | a | b | c | | |
| 3 | D | E | F | d | e | f | | |
| 4 | G | H | I | g | h | i | | |
| 5 | J | K | L | j | k | l | | |
| 6 | M | N | Ñ | O | m | n | o | |
| 7 | P | Q | R | S | p | q | r | s |
| 8 | T | U | V | t | u | v | | |
| 9 | W | X | Y | Z | w | x | y | z |
| * | * | | | | | | | |
| 0 | 0 | espacio | | | | | | |
| # | # | | | | | | | |

7.2 telefono-aurkibidean kontaktuak bilatzea

1. Mikrotelefonoa esekita dagoela, sakatu **MENU** tekla. Pantailan Agenda bistaratuko da.
2. Sakatu **MENU** tekla. Pantailan Bilatu bistaratuko da. Sakatu **MENU** tekla.
3. Pantailan, lehen kontaktua agertuko da ordena alfabetikoan. Sakatu tekla, telefono-aurkibideko kontaktu batetik bestera joateko, edo sakatu kontaktuaren lehen letra duen tekla. Izenaren hasierako letra teklako bigarrena edo hirugarrena bada, sakatu hura bitan edo hirutan jarraian.



OHARRA


Zuzenean sar zaitezke telefono-aurkibideko kontaktuetara sakatuz..

7.3 agendatik markatzea



Kontaktua aurkitutakoan, altxatu mikrotelefonoa, edo sakatu esku-librekoaren tekla:

Beste modu batera ere markatu dezakezu: kontaktua aurkitu ondoren, sakatu **MENU** tekla bitan, eta, ondoren, **Deitu?** aukera.




7.4 aurkibideko kontaktu bat aldatzea

1. Kontaktua aurkitutakoan, sakatu **MENU** tekla
2. Sakatu  tekla, **Aldatu?** hautatzeko. Sakatu **MENU** tekla.
3. Aldatu izena teklatuaren bidez, eta sakatu **MENU** tekla.
4. Aldatu zenbakia teklatuaren bidez, eta sakatu **MENU** tekla.

7.5 aurkibideko kontaktu bat ezabatzea

1. Ezabatu nahi den kontaktua aurkitutakoan, sakatu **MENU** tekla
2. Sakatu  tekla **Ezabatu?** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura.
3. Sakatu **MENU** tekla. Pantailan **Baiezta?** Bistaratuko da. Sakatu **MENU** tekla.
4. Sakatu  ekla hasierako pantailara itzultzeko.

7.6 aurkibideko kontaktu guztiak ezabatzea

1. Sakatu  tekla. Sakatu **MENU** tekla.
2. Sakatu  tekla **Guztia ezabatu?** aukerara iritsi arte, eta hautatu hura. Sakatu **MENU** tekla.
3. Pantailan **Konfirmatu?** bistaratuko da. Sakatu **MENU** tekla.
4. Sakatu  tekla hasierako pantailara itzultzeko.

8 zerbitzu bereziak

8.1 deien desbideratzea

Aukera duzu telefonora deitzen dizutenean dei hori zuk hautatutako beste zenbaki batera automatikoki pasatzeko (zerbitzu hori telefono-konpainiarekin kontratatu behar duzu).

■ Deien desbideratzea aktibatzea:

1. Altxatu mikrotelefonoa, eta sakatu tekla. Telefonoak kode bat markatzen du, eta pantailan hau bistaritzen da: Sartu zenbakia:
2. Sartu desbideratutako deiak jaso nahi dituzun zenbakia eta sakatu # tekla berresteko. Pantailan Aktiba.desbidera bistaratuko da.
3. Eseki mikrotelefonoa.



OHARRA

Pantailak, zerbitzu hori aktibatua duzula gogorarazteko, Aktiba.desbidera bistaritzen du.

■ Deien desbideratzea desaktibatzea:

1. Altxatu mikrotelefonoa, eta sakatu tekla. Pantailan, Desak.desbidera aukera bistaratuko da, eta telefonoak kode bat markatuko du automatikoki.
2. Eseki mikrotelefonoa.

8.2 deia zain


Dei bat egiten ari zarela, baliteke beste dei bat jasotzea. Une horretan, tonu batzuk entzungo dituzu elkarrizketari gainezarrita.

Tonuak bigarren aldiz entzundakoan, aukera duzu tekla sakatu eta bigarren deiarri erantzuteko. Pantailan, Deia zain azalduko da. Hala, lehen deia atxikita geratuko da.



Elkarrizketa batetik bestera pasatzeko, sakatu berriro tekla.

8.2 hiruko deia

Funtzio honek aukera ematen dizu linea banatako bi pertsonarekin elkarrizketa izateko (zerbitzu hori telefonokonpainiarekin kontratatu behar duzu).



1. Hartu mikrotelefonoa, eta markatu lehen pertsonaren zenbakia.
 2. Sakatu "R" tekla komunikazio hori atxikitzeko.
 3. Markatu hitz egin nahi duzun bigarren pertsonaren zenbakia. Erantzuten duenean:
 4. Sakatu ,  tekla. Orduan, hirurok bata besteari entzun eta hitz egin diezaiokezue.
- Pantailan, **3 arteko konfere** bistaratuko da.

Hizketan ari zarela hiruko deia egitea

Elkarrizketa batean zehar bigarren dei bat jasotzen baduzu, dei horri erantzun ondoren (tekla  sakatuz), hirurak elkarrizketan sar zaitezke  sakatuz..

8.4 ahots-postontzirako lasterbidea

Altxatu mikrotelefonoa, eta sakatu  tekla. Telefonoak automatikoki hautatzen du sarbide-kodea. Entzun mezuak, ezabatu, eta eseki mikrotelefonoa.

- Ahots-postontziia aktibatzea
Altxatu mikrotelefonoa, eta sakatu  luze tekla.
- Ahots-postontzia desaktibatzea
Altxatu mikrotelefonoa, eta sakatu  luze tekla.

8.5 euskaltelen bezeroentzako zerbitzua: **euskaltel** tekla

Tekla honen bidez, bezeroarentzako arreta-zerbitzura sar zaitezke zuzenean.

1. Altxatu mikrotelefonoa, linea hartzeko.
2. Sakatu **euskaltel** tekla. Telefonoak automatikoki markatuko du zenbaki hori.

9 zer egin zalantzaren bat izanez gero

| ARAZOA | IRTENBIDEA |
|--|--|
| Mikrotelefonoa hartzean, ez da ezer entzuten, eta, pantailan, ikonoa azaltzen da. | Egiaztatu mikrotelefonoaren kable kizkurraren 24 eta 26 konexioak ondo daudela. |
| Entzungailua hartzean ez da ezer entzuten, eta ez da pizten. | Egiaztatu gailuaren telefonialineako kable zapalaren 19 konexioa eta zure etxeko telefonohargunearena ondo daudela. |
| Telefonoa esekita dago, baina ikonoa piztuta dago. | Sakatu esku-librekoaren tekla. Tekla hori sakatu du norbaitek nahi gabe.. |
| Pantailan ikur arraroak agertzen dira, eta telefonoak ez du erantzuten. | Deskonektatu telefonoa lineatik zenbait segundoz. Pilak jarrita badaude, kendu. |
| Txirrina oso baxu entzuten da. | Begiratu hautatutako txirrinmaila. |
| Ez da agertzen deitzen duen pertsonaren zenbakia. | Egiaztatu zure konpainiaren deia identifikatzeko zerbitzua kontratatua duzula. Baliteke zerbitzua kontratatua izatea, eta deitu duen pertsonak identifikazioa desaktibatu izana. |
| Batzuetan deitzen duen pertsonaren izena agertzen eta, beste batzuetan, ez. | Deitzen duenaren zenbakia telefono-aurkibidean badago, pantailan haren izena eta zenbakia agertzen dira. Bestela, zenbakia bakarrik agertzen da. |
| Esku-librekoan, komunikazioa eten egiten da. | Bi solaskideek ez dute hitz egin behar aldi berean. |

10 Zehaztapen teknikoak

Itzuliko galerak > 14 dB.

Multimaiztasun-markaketaren kodeak: CCITT Z.23.

Emisio-denbora: > 90 ms.

Pausa-denbora: > 85 ms.

Irekiera tenporizatuaren iraupena: 100ms.

Markaketako pausa-denbora: 2 s.

Gehienezko digitu- eta karaktere-kopurua kontaktu bakoitzeko: 16.

Dei-erregistroen kopurua: 20.

80 kontaktuko telefono-aurkibidea.

Bateragarria da Euskaltelen telefono-linea analogikoekin.

Adostasun-deklarazioa

Honen bidez TELECOM Y NOVATECNO SAK adierazten du A24class telefono mugikorrek betetzen dituela 1999/05/EE direktibaren oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak.

Webgune honetan duzu adostasun-deklarazio osoa:

www.spctelecom.com

